



AZTERKETAK 38

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu politikak 2019. urterako

2018ko ABENDUA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Aurkibidea

1. INOLAKO PARTE HARTZEA ETA PROPAGANDA	3
2. HELBURUA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA	3
3. ZORRA	5
a) Zor publikora bideratzen den gastua gorantz	5
b) Itzalpeko bidesaria bikoiztu baino gehiago egin da azken hamarkadan	6
c) Zor biziak areagotzen jarraitzen du	7
4. FISKALITATEA	8
5. EUSKO JAURLARITZAREN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN DATU NAGUSIAK	9
a) Gaitasun propioentzako Aurrekontu erreala 2009an bezala	9
b) Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak kudeatzen duten errentaren zatia, bere maila baxuenean	11
6. OSASUNA ETA HEZKUNTZA, EUROPAKO AZKEN POSTUETAN ETA JEISTEN	13
a) Osasun gastuak pisua galtzen jarraitzen du	13
b) Hezkuntzara bideratutako partidak, 2009tik hona BPGrekiko txikiak	15
7. BESTE ASPEKTU GARRANTSITZUAK EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAN	18
a) Murrizketak aregotzen dira prestazio sozialetan	18
b) Etxebizitzarako gastua 2009an baino 76 milioi txikiagoa izango da	19
c) Negoziazio kolektiboaren ukapena: Rajoyk erabakitakoa aplikatzen da	20
d) Euskararen sailera aurrekontuan aipatzen den kopurua baino askoz gutxiago bideratzen da	20
8. BESTE ASPEKTU GARRANTSITZUAK NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAN	21
a) Etxebizitzako gastua	21
b) Errenta Bermatuko gastua	22
9. ONDORIOAK	23

1. INOLAKO PARTE HARTZEA ETA PROPAGANDA

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute planteatu inolako parte hartze sozialik 2019ko beraien aurrekontu proiektuak egiteko. Beste behin ere, erakunde sozial eta sindikalok ez dugu izan lan egiteko edo eztabaidatzeko aukerarik, baldintza minimo batzuetan, zerga- eta aurrekontu-politiketan. Bai Eusko Jaurlaritza, bai Nafarroako Gobernuak aurrekontu proiektuak exekutatzaren diren moduz harrotu egiten dira. Baina errealitatean gertatzen dena propaganda hutsa eta inolako parte hartzea da.

Nafarroan, egoera berriz errepikatzen da. Aurreikusten den bide bakarra Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (KES) da, zeina ez den inola ere erakunde sozial eta sindikalen benetako parte hartzea sustatzeko tresna. KESaren erabilera tramite soila da, Nafarroako Gobernuaren betebeharrak legal bat, non aurrekontuen aurreproiektua KESri bidali behar dio parlamentura proiektua bidali baino lehen. Ez dago denborarik, ezta borondaterik ere, parte hartze eraginkorra eman dadin. KESen egindako ekarpen edo kritika batek ere ez du izaten inolako eraginik aurrekontuetan, eta ez da kontutan izaten.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, aintzakotzat hartzea ezezik, aurtengoan ere propaganda kanpaina bati ekin dio herritarrei saldu nahian bere aurrekontua zein ona den. Horretarako datuak era interesatuan ematen ditu. Emandako informazioa partziala eta interesatua da, beste behin ere, eta aurrekontuaren mamia egun batzuetan ezkutuan mantendu dute. Honek ez dauka zerikusirik gardentasunarekin.

2. HELBURUA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2019ko aurrekontuaren proiektuek azken urteetan onartu diren aurrekontu murriztaileen bide beretik jarraitzen dute. Nafarroan datorren urteko aurrekontu aurreproiektuak 2018ko itxiera aurreikuspenak baino baliabide ekonomiko gutxiago bideratzen ditu. Eta Jaurlaritzak diru bilketaren hazkundera aurreikusitakoa baino altuagoa izan arren eta superabita izan duen arren, aurrekontuaren partidek areagotze oso murrizta izango dute.

2018ko aurrekontuak aztertzean, ELAk nabarmendu zuen joera murriztaile hori gobernu bien aukera esplizitua izan zela, 2018tik 2020ko ekitaldira Espainiar Estatuko gobernuarekin (zeinaren buru une hartan Rajoy zen) adostu zutelako defizit publikoaren limitea, zor publikoa eta gastu araua.

2019ko aurrekontuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak hurrengo neurriak betetzeko hitza eman zuten:

- Defizit publikoa BPGarekiko %0,1 baino handiagoa ez izatea.
- Zor publikoa EAEn BPGrekiko %13,8 baino handiagoa ez izatea eta Nafarroan %17,1 baino handiagoa ez izatea.
- 2018 urtearekiko gastu konputagarriaren hazkundera mugatu, termino nominaletan %2,7a baino handiagoa izan ez dadin. Honi “gastu araua” esaten zaio. Arau honek hitzez hitz hau adierazten du: “diru sarrerak aurreikusitakoak baino handiagoak badira, osotasunean zor publikoaren maila murriztera bideratuko dira”.

Esan beharra dago ere, Pedro Sanchezek 2019-2021 ekitaldietarako aurkeztutako aurrekontuen egonkortasun helburuek 2019rako gastu araua %2,7an mantentzen zutela, hots, Rajoyk planteatutako berbera; hori EAJren botoei esker onartu zela ere gogoratu behar da.

Garrantzitsua da aipatzea, bi gobernuek aurrekontu politika baldintzatzen zuten hiru muga horiek onartu zituztela. Une honetan, gastu araua da aurrekontuaren hazkunderari limitea jartzen diona. Aurrekontuen muga horiek, eta batez ere gastu araua, honetarako tresna bihurtzen dira:

- Gastu publikoaren murrizketa ezartzeko, kontuan izan gabe egoera ekonomikoa oparoagoa edo kaskarragoa den, partida sozialetara bideratzen den diru kopuruaren hazkundera saihestuz.
- Zerbitzu publikoen egoera kaskartzea, merkantilizazioaren bidean, oinarrizkoenak diren behar sozialen estaldurarekin negoziua egiteko, hala nola, osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak, etxebizitza, etab.
- Administrazioen aurrekontu politika erabakitzeke ahalmenarekin bukatzea. Praktikan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren areagotzea, bai eta gainerako administrazioena Estatu espainiarrean erabakitzen da, gastu araua Kongresuan erabakitzen baita eta era berean aplikatzen zaie erakunde guztiei.

Ikus daitekeen bezala, krisi ekonomikoa baliatu zen mekanismo berriak ezartzeko politika neoliberalak, doikuntzazkoak eta murrizkorrak bermatuko zutenak, ezinezko eginez politika horiei iskin egitea. Gastu arauaren helburua da instituzioek eskuragarri dituzten baliabideen hazkundera oso txikia izatea; horregatik, agintariak gestore soil bilakatzen dira amaieran, kolore desberdineko alderdiak izan arren. Sistema hori publikoa den oro hondatzeko biderik laburrena da. Aurrekontuen marko hau guztiz kontrajarria da posizio ezkertiar edo progresistekin.

Aipatutako akordio horien edukietan antzeman daiteke 2019ko Aurrekontuaren proiektuek aukera egiten dutela departamentu desberdinei baliabide ekonomiko gehiago ez bideratzearen alde. Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzaren Ogasunaren sailburuak, zeinek gastu araua “camisa de fuerza” gisa definitu duen, era berean adierazi du “gastu arauak derrigortzen duela, baina ados gaude horrekin”. Bistakoa da bai Eusko Jaurlaritzaren zein Nafarroako Gobernuaren oso gustora daudela aurrekontu politikaren norabidea horrekin.

Gastu arauarekin hautsi behar da; ELAk bere derogazioa exijitzen du eta horrekin batera, baita arau hori ezarri zuen Aurrekontuen Egonkortasunerako Legearena ere. Onartezina da baliabide ekonomikoak egotea eta ezin bideratu izatea zerbitzu publikoak hobetzera, egun urratuta dauden eskubideak bermatzera (etxebizitzaren sarbidea modukoak) edota prestazio sozialak hobetzera.

Aipatutakoari gehitu beharko genioke, marko horretan, autogobernua ez dela existitzen aurrekontuari dagokionez. Diru bilketa ondo ez doanean murrizketak egin behar badira eta diru bilketa areagotzen denean ezin bada gastua areagotu, non geratzen dira Hitzarmen Ekonomikoaren abantailak aurrekontuak hemen diseinatzeko orduan? Argi dagoena da gastu araua adostea eta autogobernua ez direla inola ere bateragarriak.

3. ZORRA

Gobernuek arlo garrantzitsuenetara bideratzen duten aurrekontua aztertu aurretik, funtsezkoa da aurrekontuaren zati handia duen zorraren ordainketari erreparatzea.

a) Zor publikora bideratzen den gastua gorantz

EAEn 2019rako zorra ordaintzeko 1.331 milioi euro aurreikusi dira, hots, aurrekontuaren ia %11,4. Beraz, 2018 urtearekiko 186 milioi euro gehiago erabiliko dira. Nafarroako Gobernuak, aldiz, 2019an 337,3 milioi euro bideratuko ditu zorra ordaintzera, 2018ko aurrekontu proiektuan baino 4,5 milioi gehiago. Hau da, aurrekontuaren %7,8a zor publikoa eta honen interesak ordaintzera bideratuko da.

Txertatutako taulan ikusten den bezala, bilakaera epe luzeagoan behatuta, emaitza beldurgarria da.

- 2009an zor publikoa ordaintzeko 83,6 milioi euro besterik ez ziren jarri, aurrekontuaren %1etik behera alegia. Zorraren ordainerako sailak, 2016an izan ezik, etengabe hazi dira EAEn.
- Nafarroan 2009an 34,7 milioi euro bideratu ziren zorra ordaintzera, 2019an 337,3 milioi izango dira. 2008tik 2019ra 3.262,3 milioi euro ordainduko dira zor publikoagatik.

Zor publikoaren gastuaren bilakaera. EAE eta Nafarroa 2009-2019

	EAE	Nafarroa
2009	83,6	34,7
2010	198,0	144,1
2011	312,9	148,1
2012	364,8	199,4
2013	412,9	299,4
2014	724,9	383,9
2015	911,2	414,3
2016	773,0	515,2
2017	838,8	381,3
2018	1145,3	332,8
2019	1331,2	337,3

Iturriak: Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua

b) Itzalpeko bidesaria bikoiztu baino gehiago egin da azken hamarkadan

Itzalpeko bidesaria, zor publikoarekin antzekotasun handia duen kanon bat da. Nafarroan zenbait obra handi ordaintzeko erabili izan den tresna da (Nafarroako Kanala eta A-21 eta A-12 autobideak). Honen bitartez obraren eraikuntza eta finantziazioa enpresa pribatu baten esku geratzen da, eta Gobernuak erabileragatik ordaintzen du. Honekin Gobernuak epe motzeko zorpetzea saihesten du, eta kontuak itxuraldatzea, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa den.

2019ko Aurrekontuen Aurreproiektuak itzalpeko bidesariagatik 96,3 milioi euro ordaitzea aurreikusten du, 2018an onartutako aurrekontuan aurreikusitakoa baino 2,9 milioi euro gehiago. 2008tik hona gastu hau 54,7 milioi hazi da, eta urtez-urte gero eta altuagoa da.

Itzalpeko bidesariren gastua (milioi eurotan) 2008-2019

2008	2009	2012	2015	2018	2019
41,6	43,4	67,4	68,2	93,4	96,3

Iturria: Nafarroako Gobernua

Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria batzen badira, 2019an 433,5 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren %10,1a.

c) Zor biziak areagotzen jarraitzen du

Orain arte egin den politika zorra kontrolatzeko gastua murriztea izan da. Baina zorrak handitzen jarraitzen du urtez urte, nahiz eta ekonomia hazi. Honek erakusten du arazoa ez dela gastua, diru-sarrerak baizik. Diru-sarrek gastatzen denaren adinakoak ez izatea erakusten du ekonomia hazten ari den garaian arazoa sarreretan dautzala.

Zorraren ordainerako sailak etengabe hazi dira. Eta sail honetara gero eta kopuru handiagoa bideratuagatik, zor bizia ez da gutxitzen. Izan ere aurkakoa gertatzen da:

- Eusko Jaurlaritzak aurreikusi du 2018ko ekitaldia ixterakoan zor publikoa 9.134,28 milioi eurokoa iango dela, hots, 2017an baino 52 milioi euro gehiago. 2019koa ere gehitu egingo da: 9.300,1 milioi euro, Jaurlaritzak aurkeztu duen aurrekontuen memoriaren arabera.
- Nafarroako zor bizia 3.743,2 milioi eurotan kokatu da 2018ko ekainean, eta urtea 3.497 milioi euroko zorrarekin amaitzea aurreikusten da, Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen aurrekontuen memoriaren arabera.

EAEko eta Nafarroako zor bizia (milioi eurotan) 2009-2019

	EAE	Nafarroa
2009	2.616,7	1.085,1
2010	4.382,1	1.690,1
2011	4.900,3	2.446,3
2012	6.088,5	2.847,1
2013	7.087,7	3.136,1
2014	7.748,2	3.197,3
2015	8.227,2	3.321,9
2016	8.765,2	3.460,8
2017	9.082,2	3.628,4
2018*	9.134,3	3.743,2
2019**	9.300,1	

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Bankua

(*) Aurreikuspena

(**) Ez dago Nafarroako zor biziaren aurreikuspenik

Edonola ere, ELAk beharrezkoa deritzo zorraren auditoritzari. Hasteko, analizatu behar da zorraren zein zati sortu den interes publikoagatik, eta zein zilegi ez den moduan.

4. FISKALITATEA

Presio fiskalak neurtzen du biltzen den dirua (zergen, Gizarte Segurantzaren eta udal-zergen bitartez) ekonomiarekiko (BPGa).

Instituzioen diru bilketa neurri handi batean areagotzen duen erreforma fiskala beharrezkoa da, instituzioen aurrekontua handitzeko aukera emango luke gainera, gastu arauan barneratuta dagoen moduan. Ordea, zergen murrizketak aurrekontuetako partida batzuen murrizketa gehigarriak eragingo luke.

ELAren iritziz premiazkoa da kontestu honetan erreforma fiskalaren gaiari ekitea aurrekontuen areagotze garrantzitsua eman dadin. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Europako batez bestekotik urruti gaude osasunari, hezkuntzari edo prestazio sozialei errentatik bideratzen zaion gastu publikoari dagokionez. Areagotze hori ukatzen dutenek gastu araua jartzen dute argudio bezala, eta era berean errenta altuei, enpresei eta kapitalari ezarri beharreko zerga igoera ukatzen dute. Argi erakusten dute gaur egun dagoen politika sozial eta aurrekontu politiken joera antisozialarekin bat datozela.

Europa mailako alderaketa egiten badugu, ikus dezakegu Nafarroan 2016an (konparaketa egiteko ditugun azken datuen arabera) presio fiskala BPGaren %29,1ekoa eta EAEn %31,2koa zen bitartean, EB-28an batez besteko presio fiskala %38,9koa zela. BPGaren 9,8 puntuko aldeak suposatzen du Nafarroan Europako batz besteko presio fiskala bagenu 2.036,1 miloi euro gehiago bilduko liratekela. EAeko presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatzeko, urtero gaur egunean baino ia 6.000 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke.

Egoera hau gertatzen da errenta-soldaten iruzur fiskalagatik eta errenta altuak, enpresak eta kapitalak ordaintzen duten zerga murrizteagatik, zeintzuk azken hamarkadetan onartu diren erreforma fiskalekin baliatu dira.

Presio fiskalaren bilakera EAEn, Nafarroan eta EB-28an (BPGaren %)

	2008	2010	2013	2014	2015	2016
Nafarroa	29,5	28,6	29,3	29,5	29,8	29,1
EAE	31,7	31	31,6	31,8	31,4	31,2
28-EB	37,8	37,2	38,7	38,7	38,5	38,9

Iturriak: Nafarroako Gobernua, Gizarte Segurantza, INE, Eurostat

Politika publikoen erabateko aldaketaren beharrezana defendatzen dugunontzat, gastu arauarekin apurtzea eta erreforma fiskalaren exigentzia, aipatutako norabidean eginda, txanpon berdinen bi aurpegiak dira, eta gure programaren funtsezko parte eta jardueraren parte izan behar dira.

5. EUSKO JAURLARITZAREN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN DATU NAGUSIAK

a) Gaitasun propioentzako Aurrekontu erreala 2009an bezala

EAE

2019rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuak 11.784,11 milioi euroko gastua aurreikusi du.

Alabaina, administrazioak izango duen benetako ahalmen ekonomikoa erabakitzeke aurrekontutik bi sail kendu behar dira: zorraren ordaina (1.331,2 milioi, aurreko atalean ikusi dugun legez) eta aurrerago Espainiako Gobernuak itzuli behar dituen lanei dagozkien gastuak (103,38 milioi, AHT eta Burdinbidearen Hego Saihesbidea).

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak 2019an bere sailen esku 10.349,52 milioi euro izango ditu, 2018ko aurrekontu kontsolidatuan (9.979,1 milioi euro) baino 370 milioi euro edo %3,7 gehiago.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektua, AHT eta zor publikoa kenduta (milioi eurotan)

	2019
Guztizko aurrekontua	11.784,11
AHT aurrerapena	103,38
Zor publikoa	1.331,20
Guztira, AHT eta zor publikoa kenduta	10.349,52

Iturria: Eusko Jaurlaritzak

Esan dezakegu hamarraldia galdu egin dela, sailtako aurrekontuetara bideratu den diru kopurua ez baita gehitu. Baina 2019rako aurreikusi diren baliabide ekonomikoak duela hamar urte jarri zirenekin alderatuz gero (2009an 10.170,9 milioi izan ziren), aurrekontu-gastua ia ez da aldatu.

Gainera, kontutan izan behar da joan diren hamar urteotan eskumenak gehitu egin direla, esaterako enplegu-politika aktiboekin, eta beraz konparazioak ez dira homogeneous. 2019 urteko sail hauek kenduz gero zalantzarik gabe eurotan emaitza litzateke Eusko Jaurlaritzak baliabide gutxiago izango duela bere eginkizunetarako duela hamar urte baino.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa (milioi eurotan). 2009-2019

	2009	2011	2013	2015	2018*	2019*
EAE	10.170,9	9.642,0	8.827,2	9.135,3	9.979,1	10.349,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Nafarroa

2019rako Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuak 4306,2 milioi euroko gastua aurreikusi du.

Ordea, Nafarroari dagokion gastu erreala baloratzeko, huurengo partidak kendu behar zaizkio:

- Estaturako Ekarpena 545,3 milioi eurokoa izango da 2019an, 2018ko aurrekontuek jasotzen dutena baino 3,6 milioi euro gehiago. Honek suposatzen du 2019ko aurrekontuaren %12,7a bideratuko dela honetara. Gainera, legealdi honetako bilakaera ikusten badugu, esaten denaren aurka, Ekarpena hazi egin da.
- 892.000 euro AHTri bideratutakoa.
- 433,5 milioi izango dira zorra eta itzalpeko saria ordaintzera bideratuko dena.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak egindako aurreproiektuak 3.326,8 milioi euroko gastua aurreikusi du bere eginkizunak betetzeko, 2018ko aurrekontu kontsolidatuan baino 49,5 milioi euro gutxiago gastatzea aurreikusi da.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektua, AHT, zor publikoa eta itzalpeko bidesaria eta Estuaren eskarpena kenduta (milioi eurotan)

	2019
Aurrekontua guztira	4.306,20
AHT aurrerapena	0,89
Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria	433,50
Ekarpena Estuari	545,30
Aurrekontu erreala	3.326,80

Iturria: Nafarroako Gobernua

Aurrekontuaren bilakaera zor publiko, itzalpeko bidesari eta Estaturako Ekarpengabe 2008tik aztertzen bada, ikus dezakegu 2019an 97,3 milioi euro gehiago besterik ez direla gastatuko. 2009arekiko aldea latzagoa da oraindik ere, orduan ia kopuru berdina gastatuko delako 2019an.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi eurotan). 2008-2019

2008	2009	2011	2013	2015	2018*	2019*
3.229,5	3.295,7	2.884,0	2.712,3	2854,5	3376	3.326,8


Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat

b) Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak kudeatzen duten errentaren zatia, bere maila baxuenean

Hamarraldi honetako bilakaeraren larritasuna nabarmen geratzen da aztertuz gero Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ekonomian duten pisua, hots, bai EAEn bai Nafarroan sortzen den errentaren zein zati bideratzen den osasungintza, hezkuntza eta abarretara.

Ekonomiaren pisuaren garrantzia izugarri murriztu da azken urteotan. Aberastasunaren zati bat, Eusko Jaurlaritzaren berezko eginkizunak betetzera bideratzen dena, %15,6koa izatetik, 2019an BPGren % 12,9 izatera pasa da. 2019rako Nafarroako Aurrekontuaren Aurreproiektua BPGren %15,50ekoa izango da. Horrek esan nahi du 2019an 2009ko BPGa baino 2,49 puntu gutxiago gastatzea aurreikusten dela.

Berezko funtsioen pisua EAE eta Nafarroan (BPG %). EAE 2009-2019



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nastat, Nafarroako Gobernua

Beraz, Eusko Jaurlaritzak 2019an bere sailalara 2009an jarritako aberastasunaren zatia bideratu izan balu arlo horietarako aurrekontua 2.174,7 milioi handiagoa izango zatekeen.

2019rako aurreikusita dagoena eta 2009ko gastuaren arteko desberdintasuna 2,49 puntukoa izan da Nafarroan. 2009ko pisua izatekotan, 2019ko aurrekontua 535,5 milioi eurokoa gehiagokoa izan beharko litzateke.

Aurrekontuaren aurreproiektu honekin, berriro ere egiaztatzen da, legealdi honetan ez dela bakarrik aurrekontuaren pisua hazten ekonomian, baizik eta galtzen dela. Datuon bidez kalkula daiteke ere zorra hazi bada ez dela izan gastua handiagoa delako, baizik diru-sarrerak jaitsi direlako. Honek adierazten du are premia handiagoa dela zerga-politikaren norabidea zeharo aldatzea: lruzur fiskalaren aurkako borroka eta errenta altu, enpresa eta kapitalen zergak igotzea beharrezko eta bidezko neurriak dira.

6. OSASUNA ETA HEZKUNTZA, EUROPAKO AZKEN POSTUETAN ETA JEISTEN

a) Osasun gastuak pisua galtzen jarraitzen du

EAE eta Nafarroa


2019an Osasun Sailera bideratutako aurrekontua 3.800,12 milioi eurokoa da, 2018ko aurreikuspen itxiera baino apenas %2,37 gehiago. Honela, Eusko Jaurlaritzak Osasunari bideratutako aberastasunaren zatia %4,7an kokatzen da. Laburbilduz, 87 milioi euro gehiago bideratu arren, BPGren pisuari dagokionez 2018an baino hamarren bat txikiagoa da.

Osasun Departamentuak 2019an 1.087,3 milioi euroko aurrekontua izango du, Aurrekontu Aurreproiektuaren arabera, hau da, 2018ko gastu kotsolidatua baino 15,1 milioi gehiago. Aurrekontu hau 2019rako aurreikusi den BPGaren %5,1 da, aurreko urteetako zati bera alegia. Hala ere, Osasun Departamentuaren aurrekontuaren igoera (%1,4) apalagoa da ekonomiak izango duen aurreikusitako hazkunde nominala baino (%4,4).

Perspektiba zabalago batetik ikusita, 2009tik eman den bilakaera oso negatiboa izan da:

- EAEn ekitaldi horretan Osasunari bideratutako gastu publikoa BPGren %5,39 zen (2019an baino BPGren 0,7 puntu gehiago). Bilakaera negatibo hori zuzentzeko, Osasun arloa 2019ko aurrekontuan baino 520,7 milioi gehiago bideratu beharko lirатеke.
- Nafarroan osasuneko gastua %5,6tik %5,1ra jaitsi da. Hots, 2019an 107,3 milioi euro gehiago jarri beharko lirатеke Osasun arloan 2010eko BPGarekiko partaidetzaren parera iristekotan.

Osasuneko gastua (BPGaren %) 2009-2019



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua


Europa

Europako Osasunaren inbertsioa alderatuz gero (honetarako eskuragai diren azken datuak erabili dira, 2016koak), agerian geratzen da EAEn eta Nafarroako departamentuetan egiten den gastu publiko txikia.

Honela, EAEn osasunean egindako gastu publikoa %4,9koa izan zen eta Nafarroan %5,1, EB-28 batez bestekoa, berriz, %7,1ekoa eta Danimarka bezalako herrialdeetan %8,6koa. Horregatik EAE EB-28ko azken postuetan agertzen zen, sei Estatu bakarrik geratuz EAEn atzetik (Zipre, Letonia, Errumania, Polonia, Luxenburgo eta Hungaria). Nafarroako egoera oso antzekoa izan zen, aipatutako sei Estatuez gain, Grezia eta Bulgaria geratu ziren Nafarroaren atzetik.

Gastuaren diferentzia honek BPGren 2,2 puntu suposatzen ditu EAEn eta Europaren batez bestekoarekin parekatzeko, EAEk 2019ko aurrekontuan 1.895,2 milioi euro gehiago gastatu beharko luke (3.800,1 milioi eurokoa da 2019ko aurrekontua). Hau da, gaur egungo aurrekontua %50 igo beharko litzateke.

BPGaren 2 puntuko alde honek esan nahi du Nafarroan europar batez besteko osasun gastuarekin parekatzeko 2019an aurrekontuan aipatutakoak baino 429,2 milioi euro gehiago beharko liratekeela (1.087,3 milioi euro).



Iturriak: Eusko Jaurlaritz, Eusko Legebiltzarra, Eustat, Nafarroako Gobernua, Nastat, Eurostat


b) Hezkuntzara bideratutako partidak, 2009tik hona BPGrekiko txikienak

EAE

Hezkuntza sailerako aurreikusitako gastuak 2.845,4 milioi euroko dotazioa jasotzen du, horrek BPGren %4,7 suposatzen du. 2018an baino 47 milioi euro gehiago areagotu arren, hezkuntzara bideratutako aberastasunaren zatia murriztu egin da ia hamarren bat (BPGren 0,07 puntu, hain zuzen).

Aipagarria da, 2009tik hezkuntzak aberastasunarekiko izan duen jeitsiera nabarmena gastu publikoaren pisuan, ia puntu batekoa izan delako. Zehazki, %4,34tik, %3,55era pasa da. BPGren %3,55etik %4,34ra igarotzeak, hezkuntzara bideratutako aurrekontua 632 milioi eurotan handitzea suposatuko luke 2019an. Hezkuntza sisteman murrizketak ondorio izaten jarraitzen dute, horren seinale da 2009ko aurrekontua eta 2019koa ia identikoak izatea, BPGren hazkundearen aurreikuspena 2019rako, 2009koa baino %23,14 handiagoa izango denean.

Atal honetan emandako baliabide ekonomikoen murrizketek hezkuntzaren atal guztiei eragiten diete (Haur eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Unibertsitatea), txertatuta dagoen grafikoan ikusi daitekeen bezala.

Hezkuntzako gastuaren bilakaera (BPG %). EAE 2009-2019

Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

Nafarroa

Hezkuntza departamentuaren aurrekontua 2019an 687,9 milioi eurokoa izango da, 2018rako aurreikusitakoa baino 26,1 milioi gehiago. Gastua BPGaren %3,2 adina da, 2018an bezalaxe. Haatik, 2010ean (murrizketak hasi aurretik) gastua BPGarekiko dezente handiagoa izan zen (eurotan antzekoa izan arren). 2010ean Hezkuntza departamentuak BPGaren %3,6 izan zuen bere esku, 2019rako aurreikusia baino 0,4 puntu gehiago, hots, 85,8 milioi euro.

Hezkuntza departamentuaren gastua 2018 eta 2019 bitartean %3,9 haziko da, eta hau ere ekonomiak izango duen aurreikusitako hazkundearen azpitik geratuko da (kopuru nominaletan %4,4 izango baita).

Hezkuntzako gastua (milioi eurotan eta BPGaren %) 2010-2019

	2010	2012	2015	2018*	2019*
Milioi euro	668,1	553,6	584,5	661,8	687,9
PIBaren %a	3,6	3,0	3,1	3,2	3,2

Iturria: Nafarroako Gobernua


Europa

Europako herrialdeen Hezkuntzaren inbertsioa alderatuz gero (baita ere honetarako eskuragarri dauden azken datuak 2016koak dira), datuak

osasanarenak baino kaxkarragoak dira, agerian geratzen da bai Nafarroan bai EAEko departamentuan gastu publikoa txikia.

Hezkuntzako gastu publikoa aztertzean,, 2016an bideratutako baliabide ekonomikoak EAEn BPGren %3,7 suposatu zuten eta %3,1 Nafarroan. EB-28ko batez bestekoa arlo honetan %4,7koa izan zen, eta Islandia moduko herrialdeek %7,1 bideratu zuten. Honela, Nafarroa EB-28ko herrialdeen artean azkena zen: ez dago Europa guztian Hezkuntzara bere errentaren zati txikiagoa bideratzen duen administrazioirik. EAE EB-28ko hirugarren postu okerrenean aurkitzen zen, soilik Irlanda eta Errumania zeudelarik egoera okerragoan.

Hezkuntzako gastu publikoa (BPG %). EB-28, 2016



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat, Eurostat Nafarroako Gobernuak, Nastat

EBeko batez bestekoaren eta EAEkoaren artean existitzen den puntu bateko desberdintasun horrek 924,75 milioi euro suposatzen ditu 2019an. Hau da, Hezkuntzarako aurrekontua 924,75 milioi eurotan areagotu beharko litzateke, 2019ko aurrekontuan dauden 2.845,4 milioi eurotaz gain (%32,4 gehiago). BPGaren 1,6 puntuko aldeak esan nahi du Nafarroan aurrekontuan aurreikusitakoak baino 343,4 milioi euro gehiago gastatu beharko liratekeela (687,9 millones).

7. BESTE ASPEKTU GARRANTSITUAK EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAN

a) Murrizketak aregotzen dira prestazio sozialetan

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, prestazio sozialetan (DSBE eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak) hobekuntza bat emateko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu zuen. ELAk inizatiba hau babesteko ia 30.000 sinadura bildu zituen.

2008an Eusko Legebiltzarrak “Diru-sarrerak bermatzeko legea” onartu zuen. Bertan, data horretara arte gertatu bezala, Lanbidearteko gutxieneko soldataren (LGS) arabera ezartzen da DSBE. Hala ere, 2012tik DSBEaren zenbatekoa indarrean dagoen legeak ezartzen duenaren azpitik kokatzen ari da. Legea ez da aldatu, baina urtez urte Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan hurrengo murrizketak onartzen ari dira:

- 2012an Patxi Lopezen gobernuak prestazio sozial guztien kantitatea %7 murriztu zuen.
- Hurrengo urte guztietan murrizketa hori mantendu da, xedapen gehigarri baten bidez.
- Gainera, azken urteetan, non LGSa KPIa baino gehiago hazi den, aurrekontuek DSBEaren igoera LGSaren hazkundera baino askoz txikiagoa ezarri dute, baita ere beste xedapen gehigarri baten bidez.

2019ko aurrekontu proiektuak, funtzionamendu horren logika berdina mantentzen du: disposizio bietan mantentzen du %7ko prestazio sozialen kantitatearen murrizketa eta DSBEaren %2,25eko hazkundera proposatzen du (urte arteko inflazioa %2,2an kokatu denean), aurreikusita dagoen LGSren hazkunderaren oso azpitik, zein hilabetean 900 eurotan kokatuko den.

2008ko Legea ez betetzeak eragin du 2019ko DSBEaren zenbatekoa legean jartzen duena baino %28,7 txikiagoa izatea. Horrek modu zuzenean eragiten die gizartean egoera okerrean dauden pertsonen.

Eusko Jaurlaritzaren proposamena onartuko balitz, pentsiodun ez den pertsona batentzat DSBE hilabetero 659 eurokoa izango litzateke, baina legea aplikatuz gero, bermatuta egon beharko luke 924 euroko gutxieneko sarrera.

2008ko Legearen arabera, bakarrik bizi diren pentsionistak LGSko %100aren sarrera bermatuak izan beharko lukete. DSBE hilabeterako kalkulatuenez (hau da, 12 urtean), legea aplikatuz, pertsona horiek hilabetero 1.050 euroko sarrera bermatuak izan beharko lukete.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak DSBEaren murrizketetan sakontzen dute, eta beste atzera pausoak gehitzen dituzte:

- Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetara (LGS) bideratutako gastua 0,5 milioi euro hazten da.
- Berriz ere sartzen da Etxebizitzarako Prestazio Osagarria bertan behera uzten duen Xedapen Gehigarria, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomiko berria arautzen denean. Gogora dezagun azken laguntza honi buruz egin zen dekretu-zirriborroaren arabera etxebizitzarako gizarte-prestazioak jasotzeko aukera zeharo mugatuko litzatekeela.
- Etxebizitzen prestazioaren zenbateko maximoak berriro ere izozten dira, beste urte batez, 250 eurotan.

ELAk horren guztiaren aurrean, beharrezko jotzen du Eskubide Sozialen Kartak aurkeztutako HELa onartzea eta aurrekontua horrekin koherentea izatea.

b) Etxebizitzarako gastua 2009an baino 76 milioi txikiagoa izango da

Bizileku bat izateko beharizan sozialak gero eta handiagoak diren arren, etxebizitzaren eta alokairuen prezioa gora doalako, Eusko Jaurlaritzak eskari horri ez dio itxuraz jaramonik egiten.

Etxebizitza politikaren garrantzi txikia eta herritarrei bizitoki bat bermatzeko politika ez garatzeko asmoa agerian geratzen da 2019ko Jaurlaritzarn aurrekonturako aurreikusitako den kopuru txikia ikusirik. 141,8 milioi euro bideratuko dira; hau 2018an baino gehiago izan arren, duela hamar urte baino kopuru urriagoa da, are urriagoa helburua etxebizitza izateko eskubidea bermatzea bada.

Etxebizitzako gastua (euro eta BPGaren %). EAE 2009-2019

	Euro	PIBaren %a
2009	217,4	0,32
2010	182,6	0,27
2011	123,0	0,18
2012	146,2	0,22
2013	125,7	0,19
2014	107,1	0,16
2015	99,8	0,14
2016	107,6	0,15
2017	122,1	0,16
2018	127,0	0,16
2019	141,8	0,18

Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

c) Negoziazio kolektiboaren ukapena: Rajoyk erabakitakoa aplikatzen da

Eusko Jaurlaritzak bere langileen baldintzak erabakitzerakoan ukatu egiten du negoziazio kolektiboaren eskubidea, hainbat eratan. Gehienetan erabakiak aldebakarrekoak direlako. Beste kasu batzutan (esaterako, erretiro partzialaren eta errelebo-kontratuaren inguruan CCOO eta UGTekin sinatu duen akordioa, behin aurrekontu proiektua aurkeztu eta gero) gutxiengo sindikalaren laguntzaz, negoziazioak ezkutuan egin ondoren.

Jokabide honen ondorioak agerikoak dira: Eros-ahalmenaren galera handia metatu da (ia %15), aldi baterako enplegu tasa izugarria da (%35etik gorakoa), eta enplegua suntsitu da.


Maiz honelako jokatzeko eman duten aitzakia izan da Espainiako gobernuak esana aintzat hartu beharra zegoela. Horrela justifikatu dituzte murrizketak. Haatik, Espainian ezarritako oinarritzko arauak hobekuntzak egiteko "aukera" eman dutenean Eusko Jaurlaritzak ez ditu aplikatu. Adibidez, ez dago plantilla egonkortu eta prekaritatea murrizteko borondaterik.

2019rako aurrekontu proiektua norabide berean doa: %2,25eko soldata igoera jasotzen du (aurrez esan dugu urtearteko inflazioa %2,2koa dela), eta Urkulluren gobernuaren benetako borondatea adierazten du, hots, bere langileen eros-ahalmenak izan duen galera iraunaraztea.

d) Euskararen sailera aurrekontuan aipatzen den kopurua baino askoz gutxiago bideratzen da

2019ko euskara sustatzeko saila 109 milioi eurokoa izango da, 2018ko itxiera aurreikuspeneko kopurua baino 28 milioi gehiago. Baina hau itxuraz positiboa izanagatik, ez du inola ere islatzen euskara bultzatzeko egiten den benetako gastua. 2009tik honako kopuruak analizatuz gero, ondoko grafikoak erakusten duen moduan sistemaz aurrekontu askoz handiagoa egiten da, gero gastua urriagoa izaten delarik. 2009tik aurrera oso gutxitan gauzatu da aurreikusitako gastuaren %80tik gora; areago, zenbait kasutan portzentajea %68eraino jaitsi da.

Horrenbestez, atal honetan aurrekontu proiektuan jasotako kopurua ez da inondik ere sinesgarria, eta ezin da esan euskarara bideratutako diru kopurua positiboa denik, 2009an aurreikusi zenetik urrun egoteaz gainera BPGarekiko pisua gero eta murriztagoa baita (honez gero %0,0013an dago).



Iturriak: Eustat, Eusko Jaurlaritza

(*) Itxiera aurreikuspena

8. BESTE ASPEKTU GARRANTSITZUAK NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAN

a) Etxebizitzako gastua

2019ko Aurrekontu Aurreproiektuak Etxebizitza arloan 36,5 milioi euroko gastua jasotzen du, zeina Eskubide Sozialetako Lehendakariordetzatik kudeatzen den. Atal honetan etxebizitza jarduketetarako dirulaguntza eta subsidioak jasotzen dira (22,9 milioi euro), baita etxebizitza-alokairu publikorako dirulaguntzak ere (13,6 milioi euro); guztira, 36,5 milioi euro.

Bilakaerak erakusten du 2018rako aurrekontuan jaso zen gastua 3,7 milioi urritu dela, eta etxebizitzako gastua azken urteetan jaitsi egin dela. 2010ean sail hauetara BPGaren %0,33 bideratu zen, hau da, 2019rako aurreikusi denaren ia bikoitza.

**Etxebizitza jarduketetarako gastu publikoa
(milioi euro, PIB %) 2010-2019**

	2010	2012	2015	2018	2019
Etxebizitza errentarientzako dirulaguntzak	5,4	9,6	11,7	13,6	13,6
Etxebizitza jarduketetarako dirulaguntza eta subsidioak	55,2	68,1	24,9	26,6	22,9
Etxebizitzako jarduketak guztira	60,7	77,7	36,6	40,2	36,5
BPG %	0,33	0,42	0,19	0,19	0,17

Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat

b) Errenta Bermatuko gastua

Errenta Bermatuan 2019rako 95,3 milioi euroko gastua aurreikusi da, 2018rako erabaki zen aurrekontuan baino 1,3 milioi gehiago (ez daukagu aurrekontu kontsolidatuari edota itxiera aurreikuspenari buruzko daturik). Bilakaerak adierazten du 2010etik hona gizarte-prestazio honetara bideratutako gastua BPGaren %0,12tik %0,45eraino hazi dela.

Errenta Bermatuko gastua (milioi euro eta BPG %) 2010-2018

	Milioi euro	PIBaren %a
2010	30,8	0,12
2011	35,9	0,17
2012	31,5	0,19
2013	39,4	0,17
2014	51	0,22
2015	65,8	0,28
2016	85,2	0,35
2017	98,2	0,43
2018	94	0,49
2019	95,3	0,45

Iturria: Nafarroako Gobernua

** Errenta Bermatua 2017, 2018 eta 2019 urteei dagokie; aurrekoetan gastu hori Gizarteratzeko Errentak eta Oinarrizko Errentak osatzen zuten*

Errenta Bermatuaren kalkulua egiteko diru kopurua jasotzen duen unitatea zenbat pertsonak osatzen duten hartzen da aintzat, besteak beste. Errenta Bermatua arautzen duen Legea egin zenean zenbatekoaren kalkulua egiteko oinarrizkat hartzen zen kopurua (hau da, pertsona bakarreko unitateena) murriztu egin zen, orduko LGStik (zeina hilean 655,2 eurokoa

zen) hileko 600 euroraino; halaber, LGSaren erreferentzia kendu egin zen, laguntza jasotzen duten beste unitateentzako zenbatekoa gehitu arren.

Beraz, 2018ko Errenta Bermatuaren oinarritzko zenbatekoa Lege hau ezarri baino lehenago zegoenaren azpitik dago oraindik ere.

Errenta Bermatuaren zenbatekoa (euroak hileko) 2018

Jasotzen duen unitateko pertsona kopurua	Zenbatekoa
1	610,80
2	824,58
3	977,28
4	1.068,90
5	1.160,52

Iturria: Nafarroako Gobernua

2019ko eguneratzea izango da, Legearen arabera, bi balio hauen artean handienaren arabera: Nafarroako batez besteko KPIa edota aurreko urteko (kasu honetan 2018ko) lehen hiru hiruhiletan soldata-kostuak izan duen igoera. Aurreikusita dago Nafarroako batez besteko KPI %1,5 gehitzea; aldiz, lehen bi hiruhilekotan lan-kostu unitarioa %0,72 eta %0,6 bitartean hazi da (hirugarren hiruhileko bilakaera ez da oraindik ezagutu, baina ez dago motiborik uste izateko aurreko bi hiruhilekoen oso desberdina izango denik).

Edonola ere, Errenta Bermatuaren zenbatekoa eguneratzeko erreferentzia gisa KPIaren igoera hartuko da (%1,5), alegia, ekonomiaren hazkundera baino askoz gutxiago (%4,4 nominala), eta LGSaren oso azpitik: hau 2018an 735,9 eurokoa da, eta 2019an 900 eurokoa izango da; horrenbestez, errenta bermatua kalkulatzeko LGSaren erreferentzia kendu izanak are eragin larriagoa izango du.

9. ONDORIOAK

1. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2019ko aurrekontu-proiektuek ez dituzte herritarren beharrianak asetzen. Proiektuen logika, neoliberala eta antisoziala da, hain zuzen Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformak eta Aurrekontu-Egonkortasunerako Legeak ezarritako aurrekontu-markoari dagokion logika.

2. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren igoera aurten ere datorren urtean espero den ekonomiaren hazkundearen azpitik geratu da. Nafarroako Gobernuaren aurrekontua 2018ko itxiera aurreikuspena baino murriztagoa da.
3. Esan daiteke hamarraldi bat galdu dela, eta honek ondorio larriak izan ditu zerbitzu publikoetan, esaterako osasunean eta hezkuntzan. 2019an eginkizunak betetzeko (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-prestazioak, etab.) duela hamar urte izan zutena baino txikiagoa izango da. Haatik, EAEn 2019an BPGa 2009an baino %23 handiagoa izango da eta Nafarroan %16,5. Honenbestez, Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisua berriz murriztu egingo da, maila historikotaraino (BPGaren %12,9, 2009an zuen %15,6aren aldean). Nafarroan ere ehuneko horrek 2009tik behera egin du, BPGaren%18tik %15,6ra arte, alegia.
4. Eusko Jaurlaritzak 2019an bere sailletara bideratu balu 2009an aurrekontuetan jarri zuen aberastasunaren zati bera, arlo hauetarako proiektuan agertzen den kopurua baino 2.147 milioi gehiago izan beharko litzateke. Nafarroan, 2019rako aurreikusita dagoena eta 2009ko gastuaren arteko desberdintasuna 2,4 puntukoa izan da. 2009ko pisua izatekotan, 2019ko aurrekontua 513 milioi euro gehiagokoa izan beharko litzateke.
5. Azken hamarraldian sailen pisuak jaitsiera handia izan du; aldiz, zorra ordaintzeko kopurua izugarri hazi da: EAEn 2019an 1.331 milioi euro, 2009an 83 izan zirelarik eta Nafarroan 337,3 milioi, 2009an 34,7 izan zenean.
6. Zorra hazi egin da foru-aldundien eta Nafarroako Gobernuaren diru-sarrerak jaitsi egin direlako, ez gastua hazi delako (ez baitu gora egin). Hiru fenomeno batu dira: aurrekontu murriztuak, zorpetze gero eta handiagoa eta diru-bilketaren jaitsiera (zerga-politikaren ondorioz).
7. 2019ko aurrekontuek aurreko urteetako logikari eusten dio: aurrekontuak murriztu egiten dira eta sail guztietan izan diren mozketak ere hor diraute. Horrela zerbitzu publikoak etengabe hondatzen ari dira, eta gizarte-prestazioak moztu.
8. Osasun eta Hezkuntzarako gastu publikoaren pisua gero eta txikiagoa da. Arlo hauetara bideratzen den aberastasunaren zatiari dagokionez Europako azken postuetan gaude. Europako batez besteko mailara iristeko 2019ko aurrekontua Osasunean %50 gehitu beharko litzateke EAEn (ia 1.900 milioi gehiago), eta Hezkuntzan, berriz, %32 (924 milioi gehiago). Nafarroan, 429,2 milioi gehiago bideratu beharko litzateke osasunean eta 343,4 milioi hezkuntzan.
9. EAeko Aurrekontu-proiektuaren arabera DSBEaren zenbatekoa izan behar da 2008an ezarritako Legeak -zeina oraindik indarrean dagoen- agintzen duena baino %28,7 apalagoa. 900 euroko LGS

batekin (14 paga) DSBEaren Legeak hileko 924 euroko sarrerak (12 paga) bermatzen ditu. Haatik, proiektuak berriz ere legea saihesten du, eta DSBEaren zenbatekoa hileko 659 euro izatea xedatzen du (legeak ezarritakoa baino 265 euro gutxiago).

10. Nafarroaren kasuan, kuartipartitoak (Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra) Errenta Bermatuaren eta Lanbidearteko gutxieneko soldataren arteko erlazioa eliminatu zuen. ELAk bere garaian kritikatu zuen erabaki hori, eta erabaki horren ondorioz LGS %100ean mantendu bazena baino askoz ere baxuagoa da DBSEren kantitatea.
11. Aurrekontu-proiektu biak daude gastu-arauaz baldintzatuta; honek agintzen du 2019ko “gastu konputagarria” gehienez %2,7 haz daitekeela. Muga hau iaz erabaki zen Espainiako Kongresuan, PP, Ciudadanos eta EAJren akordioz. Gero Eusko Jurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin ere hitzartu zuten; Pedro Sanchezen gobernuarekin ere harekin bat dator.
12. Pedro Azpiazu Eusko Jurlaritzaren Ogasun sailburuak esan du gastu-araua “alkandora hertsagarri” bat dela, baina halaber esan du ados dagoela. Ezinezkoa da aurrekontu sozialik izatea gastu-arauaren baitan; arau honen ondorioak:
 - Gastu publikoa murriztu egiten da, egoera ekonomikoa hobea edo okerragoa dela ere, eta horrek galarazi egiten du sail sozialetako aurrekontua gehitzea.
 - Zerbitzu publikoen hondamena eta merkantilizatzeko joera, xedea baita beharizan sozialik behineneak negozio-aukera bihurtzea (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, etab.).
 - Administrazioei beren aurrekontuak erabakitzeko ahalmena eragozteak. Praktikan Eusko Jurlaritzaren eta gainerako administrazioen aurrekontu igoera Espainian erabakitzen da, gastu-araua Kongresuan ebazten baita, eta instituzio guztiei molde berean aplikatzen zaie.
13. ELAk ez ditu onartzen aurrekontu-proiektu hauek; indar sindikal, sozial eta politiko progresistok posizio argi eta sendoa adierazi behar dugu. Politikak zeharo aldatu behar direla uste dugunok aurrekontu-proiektu hau arbuiatu behar dugu, gastu-araua baztertzea proposatu eta zerga-erreformak exijitu diru-sarrera publikoak behar bezala haz daitezela.

